

TXIKIZKAKO MERKATARITZAREN INDIZEA 2004ko 4. hiruhilekoa

Euskal AEko txikizkako sektoreko salmentak %6,8 hazi ziren 2004ko laugarren hiruhilekoan

Datu horien arabera, 2004ko hazkunde nominal metatua %5,3ra iritsi zen.

Eustatek emandako datuen arabera, Euskal AEko txikizkako merkataritzaren sektorean, 2004ko laugarren hiruhilekoan, salmentak %6,8 igo ziren, kopuru nominaletan, aurreko ekitaldiko hiruhileko beraren aldean. Hazkunde nominal hori, kopuru errealetan, %5,4ko urte arteko bilakaera positiboa izan zen.

2004ko txikizkako salmenten hazkunde metatua %5,3ra iritsi zen balio nominaletan, eta prezioen igoeraren eragina kenduta, %4,2ra.

URTE ARTEKO HAZKUNDE-TASA ERREALAK. EUSKAL AE

URTEA	HIRUHILEKOA	TXIKIZKAKOA	ESPEZIALIZATUA	EZ-ESPEZIALIZ. (AZAL. ERTAIN ETA HANDIAK)
2002	IV	6,5	8,4	3,3
2003	I	4,2	4,7	3,0
	II	2,1	2,2	1,8
	III	2,1	2,1	2,1
	IV	2,8	3,1	2,3
2004	I	1,5	1,2	2,1
	II	4,4	7,0	-0,5
	III	5,4	7,2	2,3
	IV	5,4	8,0	0,2

Iturria: EUSTAT

Tradiziozko txikizkako merkataritzaren (espezializatua) salmenta nominalak %8,6 igo ziren 2004ko laugarren hiruhilekoan, 2003ko laugarren hiruhilekoaren aldean. Igoera nominal hori, prezioen igoeraren eragina kenduta, %8,0koa izan zen, balio errealetan.

Gune ertain eta handietako txikizkako salmentak (ez-espezializatua) %3,4 hazi ziren balio nominaletan, iazko laugarren hiruhilekoan. Prezioen igoeraren eragina kendu eta gero, urte arteko tasaren aldakuntza %0,2koa izan zen, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean.

Tradiziozko txikizkako merkataritzaren (espezializatua) salmenta nominalak %5,9 gehitu ziren 2004 osoan, 2003aren aldean. Gehikuntza nominal hori, prezioen inflazio-eragina kenduta, %5,9koa izan zen, kopuru errealetan.

Gune ertain eta handietako txikizkako salmentak (ez-espezializatua) %4,4 hazi ziren 2004an, balio nominaletan. Prezioen igoeraren eragina kenduta, urte arteko tasaren aldakuntza %1,0koa izan zen, balio konstantetan.

Herrialde historikoka banatuz gero, laugarren hiruhileko horretan, Bizkaian izan zen txikizkako merkataritzako salmenta nominalen hazkunderik handiena; %9,3ko urte arteko hazkundera izan baitzen, txikizkako merkataritza espezializatuaren hazkunde handiak eraginda (%12,9). Ondoren, Arabak indize orokorraren %6,1eko aldakuntza positiboa izan zuen, eta Gipuzkoak, hazkunde arinxeagoa izan zuen, %2,9koa hain zuzen. Kopuru errealetan, %7,8ko gehikuntza izan zen Bizkaian, %4,2koa Araban eta %2,0koa Gipuzkoan.

2004ko laugarren hiruhilekoan txikizkako merkataritzaren sektorean ziren landunen aldetik, %2,9ko hazkundera izan zen, aurreko urteko hiruhileko beraren aldean, Euskal Aeko guztizkorako. 2003ko abendutik enplegu-hazkundera %2,0koa izan zen eta lurraldeka honakoak izan ziren datuak: Bizkaian %3,2 hazi zen, Araban %2,1 eta Gipuzkoan %0,0.

Argibide gehiagorako:

Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastian kalea, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel.: +34-945 01 75 00 Faxa: +34-945 01 75 01 E-maila: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Perez Aja

Tel.: +34-945 01 75 06. Faxa: +34-945 01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es